

DATORRENA

Urgentea eta garrantzitsua

GORKA ELEJABARRIETA > 3

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Mundu berria Euskal Herrian

MIKEL ZUBIMENDI > 9

2019ko abuztuaren 24a | VIII. urtea • 634. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



OKJOKULLEN ALDEKO «HILETA» ISLANDIAN

ISLANDIA, SUECIA, NORVEGIA, FINLANDIA
ETA DANIMARKAKO AGINTARIEK OKJOKULL
GLAZIARAREN «HILETA» EGIN ZUTEN
JOAN DEN ASTEAN. BERTAN, GIZAKION
JARDUERAREN INGURUKO HAUSNARKETAK
PLAZARATU ZITUZTEN. > 23 Jeremie RICHARD | AFP



Pobreziatik ateratzeko, dopatzera behartuta Kenyan 04

Ingelesezt ikasi eta AEBetara ihes egin 07


Okjokull glaziarraren aldeko hileta Islandian 10

GARaren zenbait lehen orrialdek erakusketa bat osatu dute 14

Elkarrizketa: Irati Iciar 18

Norbanakoaren aberastasuna, denona? 20

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Gorka Elejabarrieta:** Urgentea eta garrantzitsua

08 **Saioa Aginako Lamarain:** Sineste mugatzaileak

09 **Mikel Zubimendi:** Mundu berria Euskal Herrian

13 **Amaia Ballesteros**

17 **Xabier Izaga:** (Salbuespen) legea eta etika

21 **Antton Izagirre:** Bizipoz

21 **Miren Azkarate Badiola:** Santuak eta azalorak

22 **Arantza Diaz de Ilarraza:** Zientzia eta teknologia: gizonen kontua soilik?



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Urgentea eta garrantzitsua

Gaur, 2019ko abuztuak 24, Filtroko sarraskitik 25 urte betetzen dira. Egun horretan, Roberto Facal eta Fernando Morroni erail eta beste asko zauritu egin zituzten Montevideon, estradizio zain zeuden euskal errefuxiatuen aldeko protesta jendetsuetan parte hartzeagatik. Uruguako herriak Euskal Herriarekiko erakutsitako elkartasuna tamainakoa izan zen. Da. Hamar mila kilometrotara euskal herritarren oinarritzko eskubideekiko erakutsitako tinkotasunaz eta babesaz bertoko batzuek ere ikasi beharko lukete.

Munduan ez daude bi gatazka berdintsu, eta, ondorioz, ez dago eta ez da egongo gatazka guztiak modu berdintzuan konponduko dituen modu edo biderik. Hala ere, badira kontuan hartu beharreko hainbat irizpide, beharrezkoak diren pauso edo arauak. Hamarnaka, ehunka dira leku eta agertoki diferenteetako praktiken ondorioz ikasitakoak, inklusioaz, “irabazi-irabazi” estrategiez, elkarriketaz eta abarrez hitz egiten digutenak. Nik irizpide horietako batean zentratu nahi nuke gaurko artikulua, presoek gaiaren konponbidean, hain zuzen.

Edozein gatazka armaturen ondorioen konponbidea urteak, belaunaldiak eskatzen dituen prozesua da. Berradiskidetzea ez da gauetik goizera egiten den ariketa. Alde guztien partetik denbora eta borondate ona eskatzen dituen prozesua da. Hori dela-eta, gatazken konponbidean aritzen direnek eta adituek, gertatutakoan baino, gertatzen ari direnetan kontzentratzen dituzte lehen ahalegiak. Horrelakoetan ez dago beste zerbait baino garrantzitsuago den ezer, oso zaila baita sufrikarioen mailakatze bat egitea, baina badira aldiz urgentzia daukaten gaiak. Eta horien artean, bereziki, oraindik ere gatazkak bere horretan irauten zuen garaiko eskubide urraketak pairatzen dituzten kolektiboak daude. Tartean, bereziki, presoena.

Nazioarteko esperientziak, aipaturiko bake edo konponbide prozesu horiek guztiek, gauza bat erakutsi digute: ez dago bakean aurrera egiterik, etsai edo arerioen arteko bakea eraikitzerik, presoek kartzeletan jarraitzen badute. Irlandak, Hegoafrikak, Achek, Uruguai eta abarrek bi gauza erakutsi dizkigute: presoek gaia ez da erraz konpontzen, baina presoek kontuari konponbidea eman

behar zaio, urgentziaz, arin. Preso guztiek kalean libre egon behar dute ahalik eta azkarren. Batetik, agertoki berria ezin delako gatazkan ibilitako aldeetako baten eskubide urraketak mantenduz eraiki, eta, bestetik, kolektibo horrek, presoek, agertoki berriaren eraikuntzan protagonismo berezia izan dezakeelako. Nazioarteko hainbat adibidek hori berbera erakutsi dute. Nelson Mandelak honakoa esan zuen auzi horri eta bere bizi esperientziari lotuta: «Nire herrialdean lehendabizi kartzelara zoaz, eta, ondoren, presidente bilakatzen zara». Mandelari gertaturikoa beste askori gertatu zaie munduan zehar. Norbaitek uste al du Irlandan edo Hegoafrikan bake prozesuek aurrera egiterik izango zutenik presoek kartzeletan jarraitu izan balute? Nazioarteko esperientzia eta praktika oso argia da auzi honetan: presoak berehala askatu behar dira.

Urrian zortzi urte beteko dira ETak borroka armatua behin betiko utzi zuenetik. Azaldu dudanagatik ulergaitza da gurean oraindik preso politikoak egotea, bake logikan pentsatzen duen ororentzat behintzat. Gurean, gainera, badago egoera are ulergaitzagoa egiten duen beste arrazoi politiko bat: borroka armatua indarrean izan zen urte luzeetan zehar, borroka armatuaren kontra eta hura desagerrarazteko helburuarekin zenbait indar politikok egindako akordio politiko guztiek presoek gaiaren konponbidea barnebiltzen zuten (Ajurianeko Ituna esaterako). Garai hartan pentsatzen, defendatzen eta eskaintzen zutena gezurra al zen? Norberak erantzun dezala, baina emandako hitza horrenbeste aldarrikatzen dutenek horren gutxi betetzeak zer pentsatua ematen dit...

Esan bezala, gurean presoek beren etxeetan libre beharko lukete aspaldi. Hori gertatu ez eta gainera presoek oinarritzko eskubideek urratuta jarraitzen dute: gradu bereziak, dispertsioa, urrunketa, gerra garaiko politikak bere horretan. Ulergaitza, onartezina. Bakea eraiki nahi duen edonoren lehentasuna izan beharko litzateke egoera hori konpontzea. Gaur, Filtroko sarraskitik 25 urte betetzen diren honetan, Bilboko kaleetan presoek aldeko jaietako beste manifestaldi bat egin beharra dagoen honetan, batzuek, debate faltsuak puztuz, ilargira beharrean hatzari begira jarri nahi gaituzte, erregea biluzik dela konturatu ez gaitzen. •

Presoen egoera onartezina da. Bakea eraiki nahi duen edonoren lehentasuna izan beharko litzateke hori konpontzea

KENYA

Pobreziatik ateratzeko dopatzera behartuta sentitzen dira korrikalariak

Ezagunak dituzte dopinarekin lotutako arriskuak, baina esaten dute horiek onartzea beste erremedio-rik ez dutela kirolean errendimendu egokia lortu eta beren familiak miseria gorritik ateratzeko. EPO edo eritropoietina kontsumitzen duten Kenyako bigarren mailako lau atletekin hitz egin du France-Presse agentziak, izenik eman gabe beren lekukotasuna eman dezaten.

Beste ehunka kirolarik egiten duten moduan, lau atletak Iten Kenyako atletismoaren sehaskan entrenatzen dira, herrialdearen mendebaldean,

 **KIROLAK** / Cyril BELAUD (Afp)

Kenyakoak dira munduko maratoilari onenetako asko: aurten mundu osoan egin diren 100 marka onenen artean, 38 kenyarrek lortutakoak dira. Aldi berean, dopinaren aurkako erakundeak beste herrialde askotakoak baino ahulagoak dira. Afp-k dopatzera behartuta sentitzen diren lau atletekin hitz egin du.

Rift Haran Handian nabarmentzen den goi lautadan. Kenyan bertan ez dira ezagunak, baina kirolari horien markak maratoian, maratoi erdian edo 10.000 metroko lasterke-

Kenyako maratoilariak entrenatzen, Iten «munduko atletismoaren hiriburuan». Tony KARUMBA | AFP


tan oso onak dira, European edo beste leku gehienetan punta-puntako atletak bihurtzeko adinakoak.

Maratoian sekulako harrobia du herrialdeak. 42.195 me-

troko lasterketan Kenyak talentu asko ditu, beste edozein herrialdek baino askoz ere gehiago. Datu bat ideia hobeto ulertzeko: aurten mundu osoan egin diren 100 marka onenen artean, 38 kenyarrek lortutakoak dira.

Eta Atletismoaren Zuzentasun Unitateak emandako datuen arabera, gaur egun mila kenyar inguruk mundu osoan maratoiak egiten dituzte bildutako diruarekin bizi ahal izateko. Mila, erraz esaten da!

Izen handiko lasterketetan ordaintzen dituzten zentzugabeko kopuruetera (200.000 dolar kobratu zituen iaz Dubaiako maratoia irabazi zuenak) iritsi gabe, atletok ehunka



Atletismoaren Zuzentasun Unitateak emandako datuen arabera, gaur egun mila kenyar inguruk mundu osoan maratoiak egiten dituzte bildutako diruarekin bizi ahal izateko


«Nire familia oso pobrea denez, ni dopatzea beharrezkoa zen aurrera atera ahal izateko –dio Alex atletak–. Ezinezkoa da dopatzen den jendearen pare egotea ezer hartu gabe»

hen aldiz eritropoietina. Lehen eta azken aldia, oraingoz. Lasterketa hartan 40.000 dolar irabazi zituen. Baina beldurrez bizi zen eta gehiago ez egitea erabaki zuen. Gaur egun gauzak aldatuta daude eta, lagunek lortu dituzten emaitzak ikusita, berriz ere dopatzeko erabakia hartua du dagoeneko. «Dopina utzi nuenetik, nire bizitza zaila izan da. Horregatik erabaki dut lasterbide bat hartzea».

Beste puntu batean ere bat datoz lau korrikalariak: Kenya-ko dopinaren aurkako borroka oso ahula da, agintarien ustelkeriaren eraginez. Oso erraza omen da funtzionario bat erostea. «Kenyan herritar gehienak ustelak dira. Beraz, dopina albo batean uzteko eta atletismotik iruzurgile guztiak botatzeko, ustelkeriaren aurka egin behar da borroka». Baina aurrekontuak murriztu egin dizkiote ADAK agentziari.

Eskuineko argazkian, Japhter Rugut ADAK Dopinaren Aurkako Kenyako Agentziako burua. Simon MAINA | AFP

Beheko irudian, analista bat Nairobiko Lancet laborategian lanean, Dopinaren Aurkako Munduko Agentziak Afrikako ekialdean onartuta daukan bakarrean. Tony KARUMBA | AFP



«ORAINDIK GEHIAGO EGIN BEHAR DUGU»

ADAK Dopinaren Aurkako Kenyako Agentziako burua da Japhter Rugut. Berak dioenez, dopinaren aurkako borrokan asko aurreratu dute Kenyan 2016an erakundea sortu zutenetik, baina oraindik askoz ere gehiago egin beharko da, herrialdeko atletak susmopetik ateratzeko.

Agentzia sortu zuten garaian esaten zen Kenyako atleta askok dopin kontroletan emaitza positiboa izaten zutela zer egiten ari ziren ez zekitelako. Horregatik atletei zuzendutako hezkuntza programa bat jarri zuten abian. «Etikari dagokionez, tranpak egitea ez dagoela ondo jakin dezaten nahi genuke», azaldu du. Eta garrantzi handiagoa ematen dio debekatutako gaiak zer diren kirolariek ulertzeari.

Kirolariei substantzia horiek ematen dizkieten pertsonen aurkako borrokari dagokionez, ADAKek itun bat sinatu du Kenyako Batzorde Farmazeutikoarekin onartuta dauden araudiak bete daitezen. Botika bakoitzaren trazabilitatea edukitzea dute helburu, gai bakoitza nork hartu duen jakitea errazago izan dadin.

Arazoari behar bezala heltzeko Kenyak duen oztopoetako bat bertako atleta kopurua izugarria izatea da. «Horixe da gure erronka nagusia». Ruguten hitzetan: «Programa berriak garatu behar ditugu, langile gehiago eduki lanean, eta beharbada Gobernuari diru gehiago eskatu. Disuasio-neurriak behar ditugu, norbaitek pentsatzen badu kontrolik pasa gabe korri egitea posible dela, tentazio horretan eror daitekeelako».

Parlamentuak onartu dituen aurrekontuak kontrako bidetik doaz, ordea. Eta modu horretan, ustelkeriaren susmopean segituko dute funtzionarioek. IAAF Atletismo Federazioen Nazioarteko Elkarteak dio Kenya dela, dopin kontuetan, arrisku gehien duen nazioetako bat. Nola aldatu iritzi hori? «Erraza da: kontrol gehiago egin behar ditugu, hezkuntza eskaini eta kontroletan emaitza positibo gutxiago eman». 2020ko Olinpiar Jokoetara joateko arazorik ez izatea espero du, 2016an esku hartu ezinik geratzeko arriskuan egon baitziren.





Oscar RIVERA | AFP

IKUSMIRA

INGELESEZ IKASI ETA AEB-ETARA IHES EGIN

Evelyn Hernandez El Salvadorretik nekez iristen diren berri on arraro horietako baten protagonista izan da aste honetan. 17 urte zituela bortxatu egin zuten eta gero umea hilda jaio zitzaion. Jainkoaren erreferentziaz beteta dagoen herrialdean, bekatu larrienetako bat da haurdunaldia etetea, bortxaketa bera baino askoz ere larriagoa, agintarien jarrera ikusita. Berak haurdun zegoenik ere ez zekiela esan zuen arren, 30 urteko kartzela-zigorra ezarri zioten. Hiru urte giltzapean egin ondoren, aste honetan kendu diote zigorra, eta berak barruan geratu direnak gogorarazi ditu: abortua legeztatzearen aldeko erakundeek diote 147 emakume zigortu dituztela herrialdean 2000tik 2014ra bitartean, eta horietako hamasei une honetan kartzelan daudela. Aske geratu den gazteak hemendik aurrera dituen planen berri ere eman du: informatika eta ingelesa ikasi. El Salvadorreko herritar askok AEBetara ihes egitea beste erremediorik ez dute ikusten aurrera ateratzeko, han Trump eroaren kapritxoaren mende egongo badira ere. joseangel.oria@gaur8.info



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Sineste mugatzaileak

Abraham Maslow psikologoak, honakoa galde-tzen zion bere buruari **XX. mendearen erdialdean: autogaratzeko ahalera mugagabearekin jaiotzen bagara, zergatik ez du mundu guztiak autoerrealizazioa helburu?** Maslowk aipatzen zuenez, gure txarrenaz beldur garen bezala, beharbada, gure ahalbide handienez ere beldur gara. Horri, “Jonasen konplexua” deitu zion: gure unerik onetan, gure baldintza egokienekin imajinatzen duguna izatera heltzeak ikaratu egiten gaitu.

Pixka bat aurrerago, XX. mendeko 60ko hamarkadaren amaieran, Ameriketako Estatu Batuetan, Matina Horner izeneko psikologoak, bere doktorego tesia emakumezkoen arrakastarako motibazioari buruz egitea erabaki zuen. Gaia interesgarria iruditzeaz gain, bere inguruan auziari buruzko ikerketa gutxi zeudela jabetu zen Horner.

Ikerketan parte hartu zuten emakumeen bi herenek baino gehiagok, ondorio negatiboak egozten zizkionten arrakasta lortzeari, batez ere, arrakasta lehiakortasunaren eskutik etortzen zenean. Hornerrek argudiatu zuenez, etapa goiztiar batean, agindutako feminitate arau sozialekin bat ez zetozen lanbideetan, emakumeek arrakastarekiko higuina garatzen zuten, beraien buruak kritika sozialek babesteko asmoz. Hori horrela, Hornerrek baieztatu zuenez, garaiko Ameriketako Estatu Batuetako gizarteak, feminitatea eta lehiakortasuna elkarrekiko desiragarri, eta, aldi berean, baztertzaile hautematen zituen.

Emakumearen askatasuna lortzeko mugimenduaren borroken artean, emakumeek beraien lorpenak

zapuztea eta beraien gaitasunak eta indarrak ez aldarrikatzea eragiten zuten traba psikologikoak ezabatzeak egon behar zuela proposatu zuen Hornerrek. Gainera, arrakasta izateko beldurra guztiz zentzuzkoa zela nabarmendu zuen. Gizarteak emakumezkoen emandako irakaspena zela, gizarteak emakumeekiko duen jarreraren ondorioetako bat, alegia, beldur erreala zela eta ez neurotikoa edo asmatutakoa.

Gurekin bizitzaren bidaian doazen sineste askok ez dute islarik erreallitatean. Beste batzuek sinetsarazi dizkiguten ideiak dira eta hazkuntzarako oztopo bat dira. Bai munduari buruzko ikuspegia bai zuk berari buruz barneratu duzuna berreraiki egin behar dira; era berean, zure hazkundera geldiarazten duten tranpa kognitibo eta emozionalak identifikatu egin behar dira. Hori

erreza ez den arren, lortzerik bada. Gure burua boikotatzen duten ideiak, gizarteratzen hasten garenetik daramatzagu gurekin. Haurtzarotik integratzen dira gure pentsamenduan eta hazkunde pertsonala higitzen joaten dira. Horrela, “nik ez dut honetarako balio” edo “ez zaitez saiatu” bezalako esaldiak gure identitatea eta ahalerak txikituz doaz. Gure gaitasunak ezagutu arren, maizegi uzten diegu ziurtasun-gabeziei irabazten. Hori, funtsean, zor zaio sineste mugatzaileak bertakotzen diren sakontasunari, gure geruza psikologikoetako sakonenean jarritako haziak baitira. Gainera, sinesteok, beldurraren eskutik doaz, eta, beraz, arrazoiaren aurrean galdu egiten dute. Sinesmenak hor daude eta boterea ematen diegu. Zeri ematen diozu boterea? •

saioaaginako@gmail.com



Maizegi uzten diegu ziurtasun-gabeziei irabazten.

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Mundu berria Euskal Herrian

Gaur hasi da Biarritzen ditxosozko G7 taldearen gailurra. Munduko agintari auto-proklamatuen familia bilera, itxuran elkar ondo hartzen duten kideen artekoa. Ustez, bilerak demokrazia sustatzea eta globalizazioak denentzat funtzionatzen duela bermatzea du helburu. Finean, baina, sistema-ren zaindarien ohorezko bilkura besterik ez da, agenda partekatu bat defendatzen dutenena. Egiatan, gainera, elkarri mokoka eta mehatxuka dabilta, elkarren arteko hausturak ikusgarri eginez. Argazki ofizialetik harago, haserreak eta kalapitak ez dira faltako.

Txinaren eta AEBen arteko merkataritza gerrak atzeraldi ekonomiko latz baten itzala mehatxagarri bilakatu duen honetan, pil-pilean izango dira Biarritzen bai Frantziak Google eta gisako konpainiei jarri nahi dien zerga bai Trumpek frantses ardoui ezarri nahi diena. Edo Brexitaren azken tantoa. Edo Europar Batasunaren disoluzioa bultzatzeko Trumpen ahalegin etengabea. Edo klima...

Gai asko, arazo asko, itxurakeria galanta, eta, hego ala ipar, Euskal Herriko eskualde oso bat hankaz gora. Mojak bezala, militarizazio erakustaldi itogarri batek komentuan sartuta. Haserre dabilta bertako anai-arrebak, bertako dendariak, bertaratutako bisitariak. Garraioa, merkataritza, egunero-ko bizitza, erabat aztoratuta. Horrelako muntaia politiko-militar global eta erraldoi batek herritarrak bertan kieto etxean geratzea bilatzen du. Bigarren mailako herritar direla otzan barneratzea, apatiko, interes gabe, hezurretaraino beldurtuta, antolatzeke eta koordinatzeke aukerarik gabe daudela pentsatzea.

Baina munduan antolatu diren G7aren beste gailurretan gertatu bezala, Euskal Herrian ere borrokaleku ugaritako ekintzaileak bildu dira, askotariko maila eta taktiketan trebaturikoak. Erreferentzia puntu konpartitu bat, giro partikular bat, polarizaziorako une goren

bat, amets utopikoak munduratzeko agertoki paregabe bat daukate. Eta guk, euskaldunok, munduari hemen nazio bat dagoela erakusteko parada dugu, baliatu beharrekoa. Gure nortasun propioa munduratzeko, eta mundu berri baten aldeko eztabaida global horretan, nazio zahar honen txikitasunetik, gure esperientzia eder askoak eskaintzeko.

Euskal Herrian, Quebecen edo Sizilian, G7aren gailurrok erreboltarako itsasargi bihurtu dira, nolabaiteko erromantizismo iraultzaile baten objektu, sinismen erradikalen froga. Eta beti egon da gailurrotan beltzez janzten diren mamuen jokoa, komunikabideek anplifikatua. Anarkistak, autonomoak, ekintza zuzenaren aldekoak edo deitu nahi bezala, baina beti egon dira gailurrotan nortzuk diren bainoago zer nahi duten

G7 taldearen goi gailurraren aurkako ekitaldiek aukera eskaintzan digute munduratu eta mundu berri baten aldeko eztabaidan gure nazio zahar eta txikitik gure esperientzia eder askoak eskaintzeko

inportanteagoa dela aldarrikatzeko, eta, nahi, dena nahi dutela eta denentzako nahi dutela, plazaratzeko. Beste gauza askotarako bezala, horretarako unea eta gunea ere ematen baitute gailurrok. Baina unean-une-ko mobilizazioa baino inportanteagoa da irautea, borrokek eta helburuek irautea. Eta hori, komunitatearekiko loturak, lurraldean sustraitzeak, zure herriak zarena izateko emandako arnasak eta izango zarenaren neurrira iristeko babesak soilik eskain dezake.

Euskal Herriak ongi baliatuko du une eta gune hau, guretzat hemen azken batailarik ez dagoela jakitun. Munduko agintari horiei eta, are inportanteago, publiko zabalari, erakusteko borrokak ez duela zentzua galdu, merezi duela, mundu berria Euskal Herrian dela. •

ISLANDIA

Krisi klimatikoak desagerrarazitako lehen glaziarra gogoan dute herritarrek

Beroketa globalak urtu zuen Okjokull izeneko glaziarra. Joan den igandean etorkizunerako mezu bat duen plaka bat ipini zuten sumendiko tontorrean, mende askotan izotza nagusi izan den tokian, dozenaka herritarrek. Klima aldaketaren ondorioen inguruko hausnarketa egiteko aukera paregabea izan zuten bertaratu ziren zientzialari, ekintzaile eta kazetariak.

Islandieraz “Ok glaziarra” esan nahi du *Okjokull* hitzak. Uhartearen mendebaldean dago leku triste hori. Reykjavik hiriburutik gertu samar, ipar-ekialdean. Joan den igandean plaka inauguratzeraz joan ziren batzuek hileta moduan kontatu dute bisita, «700 urterekin

 **JENDARTEA** / joseangel.oria@gaur8.info

Joan den asteartean Islandia, Suedia, Norvegia, Finlandia eta Danimarkako agintariek adierazi zuten beren lurraldea munduko jasangarriena izan dadin saiatuko direla. Bi egun lehenago, sumendi ugari dituen uhartean desagertu den glaziar handi baten «hileta» egin zuten, gizakion jardueraren inguruko hausnarketak plazaratuz.

hil zen glaziarraren hileta», BBC katearen kronikan irakur daitekeenez.

Zientzialariek 2014an deklaratu zuten ofizialki Okjokullen heriotza, ordurako izotz gehiegi galduta baitzegoen, eta horrexegatik mugitzeko gaitasuna galduta zuelako. Glaziar

Glaziarrak galtzen ari diren paisaian, neska gazte batek orain arteko jarrera aldatzeko eskatzen digu gizakioi txartel baten laguntzaz: «Sakatu larrialdiko balazta».

Jeremie RICHARD | AFP

ikusgarri zena, sumendi bateko tontorreko izotz zati txiki bihurtu da.

Katrin Jakobsdottir lehen ministroa, Gudmundur Ingi Gudbrandsson Ingurumen ministroa eta Mary Robinson Irlandako presidente ohia igandeko ekitaldian elkartu ziren.

Jakobsdottiren hitzak entzun ondoren, «hildakoaren» senitartekoak sumendiko tontorrera igo ziren, plaka esanguratsu bat ipintzeko. «Ok da Islandian glaziar izaera galdu duen lehenengoa», irakur daiteke bertan. «Datozen 200 urteetan, gauza bera gertatuko zaie geure glaziar nagusi guztiei. Monumentu honekin adierazten dugu badakigula zer gertatzen ari den eta zer egin behar dugun. Zuek jakingo duzue lortu dugun ala ez», dio idatziak, hemendik mende batzuetara irakurriko dutenei zuzenduta.

Andri Snaer Magnason idazle islandiarrak egindako idatzia ekitaldiko datarekin eta airean dugun karbono dioxido kontzentrazioarekin amaitzen da. «Bestelako denbora espa-



rru bat etortzen zaizu burura paperean idatzi beharrean ko-brearen gainean idazten duzunean –esan dio Magnasonek BBCri–. Imajinatzen hasten zara hemendik 300 urtera norbait etorriko dela plaka hori irakurtzera».

Edonola ere, igandekoa planeta osoarentzat une sinboliko garrantzitsua izan zen, idazlearen ustez. «Klima aldaketak ez du ez hasierarik ez amaierarik. Plaka honen atzean dagoen asmoa seinale bat uztea da, gertaera historiko batzuk gertatzen ari direla eta ez genituzkeela normalak izango balira bezala onartu behar nabarmentzen duen seinalea. Ez genuke lasai geratu behar glaziarra besterik gabe joan zela esanez. Gertatutakoa zinez esanguratsua da».

IZOTZ HILA

Oddur Sigurdsson Islandiako Meteorologia Bulegoko glaziologoak 2014an deklaratu zuen Okjokull glaziarren heriotza. Mende erdia darama herrialdeko glaziarrei argazkiak egiten. Horri esker konturatu zen, 2003an, Okjokullek izotz gehiegi galtzen zuela, gero neguan pilatuko zuen kopurua baino gehiago. «Azkenean pentsatu nuen bertara joan beharra neukala zergatik txikitzen ari zen argitzeko. Horixe egin nuen 2014an –esplikatu die adituak kazetariei–. Glaziarra geldirik zegoen, bizirik egoteko behar duen lodierarik ez zuelako. ‘Izotz hila’ deitzen diogu horri».

Glaziologoak emandako esplikazioen arabera, nahikoa izotz pilatzen denean, presioak berak masa osoa mugitzera behartzen du. «Horixe da glaziar baten eta glaziarra ez den izotz zati baten arteko muga. Muturreko presio hori izateko

40-50 metroko lodiera eduki behar izaten du».

Sigurdsson ez zen bakarrik ibili 2014ko bidaia hartan, heldabide batek glaziarren heriotzaren berri eman nahi baitzuen. Baina bi lagun lanak ez zuen lortu herritarrek jaramon egitea. «Harrituta geratu nintzen glaziar hori populazio handiko eskualdeetatik ere ikusten baitzen, eta Islandiako errepide nagusiko puntu askotatik ere bai. Ume gehienek ere ezagutzen zuten, izen bereziarengatik eta mapan zuen lekuarengatik», onartu du zien-

Herritarrak, agintariak, zientzialariak eta kazetariak, glaziarra gogoan izateko plaka ipiniko zuten puntura bidean.

Jeremie RICHARD | AFP




tzialariak. Orduan Cymene Howe eta Dominic Boyer antropologoak iritsi ziren uhartera. Texasko Rice Unibertsitateko irakasle dira biak ala biak. “Not Ok” (euskaratuz gero, “ez dago ondo”) izenburuko dokumentala egin zuten iaz galdu zen glaziarren inguruan, eta nolabaiteko omenaldia egitea proposatu zuten.

«Hemen dugun glaziar honen historiak kontatzen digu planetako arro glaziar guztietan ikusten ari garen aldaketa katastrofikoa, baina historia bera ez zen hain ezaguna»,

adierazi zuen Howek BBCren kameran aurrean. «Fenomenoari ikusgaitasuna emateko pelikula egin nahi izan genuen. Eta plakak berak ere helburu bera dauka».

Boyer doktoreak eranstean du gizakion “lorpen” bat dela glaziarra hiltzea. «Gertakari handiak eta gizakion ‘lorpenak’ aitortzea izaten da plaken zeregina. Glaziar baten heriotza ere gizakion ‘lorpen’ bat da, zalantzaz betetako ‘lorpena’, hori bai, glaziar hori urtzea klima aldaketa antropikoaren eragina baita».



Lehen ere glaziar asko urtu izan dira, askoz ere txikiagoak normalean. «Baina Okjokullen neurriko glaziarrek dira orain desagertzen hasi direnak. Aurrerakoi handienak ere, izen ezagunekoak, mehatxupear egongo dira», dio Boyerrek.

Glaziarrek erabat lotuta daude islandiarren kulturarekin.

Snaefellsjokull mendebaldean dagoen sumendiak, esaterako, glaziar bat du. Julio Vernerren «Lurraren bihotzeraino» zientzia-fikziozko eleberriko pertsonaiek planetaren erdi-erdiraino doan bidea bertan topatu zuten. Baina glaziar hori ere ahultzen hasita dago. «Nire belaunaldikoek mendi,

Cymene Howe eta Dominic Boyer antropologoek «Not Ok» (euskaratuz gero, «ez dago ondo») izenburuko dokumentala egin zuten iaz, galdu den glaziarren inguruan

Sigurdsson glaziologoak Islandian 2000n zeuden glaziarren inbentarioa egin zuen: 300dik gora, uhartean sakabanatuta. Orain bi urte, haietako 56 txikienak desagertuta zeuden



Ezkerreko irudian, AEBetako NASA espazio agentziak egindako bi argazki: glaziarra 1986an (goian) eta aurten. Eskuinekoan, sumendian jarri zuten plaka.
AFP

basamortu eta fiordo garrantzitsuenen izenak buruz ikasi beharra izaten genuen –esan du Magnasonek–. Beraz, kulturalki, glaziar hori haurtzaroan eskolan irakurtzen genituen testuekin ere lotuta dago».

Txikitan ziurtzat emandakoa, orain ez dago hain garbi. «Deskribatzen ikasi genuen mundua, buruz ikasi genuena, betiko gertakari moduan ulertu genuena, erabat aldatuta dago», idazlearen hitzetan.

EDERTASUNA

Oddur Sigurdsson glaziologoak Islandian 2000n zeuden glaziarren inbentarioa egin zuen: 300dik gora, uharte osoan sakabanatuta.

Orain bi urte, berriz, haietako 56 txikienak desagertuta zeuden. «Orain 150 urte, Islandiako inor ez litzateke glaziarrek desagertzeko aukerarekin kezkatuta egongo. Baina gaur egun, glaziarrek atzera egiten dutenean, gauza eder bat bezala hartzen dira, izugarri ederrak baitira», adituaren iritziz.

Sigurdssonek nabarmendu du uharteko glaziarrik zaharrenek herrialdearen historia osoa gordeta dutela: «Erabat desagertu baino lehen historia hori berreskuratu beharrean gaude».

LUR AZPIKO ABENTURAK



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:

HOGEI URTEOTAKO UNEAK

GARAREN hainbat lehen orrialde, Gasteizko Hala Bedi tabernako hormetan ikusgai

Ma n u
Araka-
ma ar-
gazki-
lari-
ga s -

teiztarrak ezohiko erakusketa bat antolatu du Gasteizko Hala Bedi tabernan. Oraingoan ez ditu bere argazkiak ikusgai jarri, GARAKO hainbat lehen orrialde baizik.

Espero izatekoa denez, GARAREN lehen zenbakia ere ageri da horman zintzilik. 1999ko urtarrilaren 30eko edizio hark ez zuen lehen orrialde berezirik agertu, beharbada eguneroko jardun normalizatuaren itxura emateko asmoz, uste izatekoa denez, erredakzioan nerbioak airean ibiliko ziren arren. Zenbaki hartako albiste nagusia hautetsien biltzar bati buruzkoa zen. Baina edizio hark eta gaur arteko ia 7.500 zenbakiak argia ikus zezaten beharrezkoa izan zen urte erdiko lan ikaragarria.

“Euskadi Información” egunkariak iragarri zuen herri proiektu berri hura 1998ko uztailaren 31n, eta Arakamak bere erakusketara eraman du zenbaki hura ere: «1998ko uztailaren 15ean, ‘ausartu’ egin ziren, Aznar presidente espainolaren hitzetan. ‘Egin’ itxi zuten, legez kontra itxi ere. Hurrengo egunean kalean zen ‘Euskadi Información’. Hedabide hark eman zuen beste herri proiektu baten eta hura gauzatzeko kanpainaren berri».

Mikel Laboaren heriotzak bete zuen GARAREN 2008ko abenduaren 2ko lehen orrialdea. Erakusketan lehen orrialde horren azpian jarritako testuak dioenez, kultura-ondare ikaragarria ez ezik, elkartasun erakusgarri ugari ere utzi zituen euskal abeslari handiak; horietako bat, GARA kalera

 **ERAKUSKETA** / Xabier Izaga Gonzalez

Gasteizko Hala Bedi tabernako hormak GARAREN hainbat lehen orrialderekin apainduta ageri dira joan den astearteaz geroztik. Manu Arakama argazkilariak, «daukagunaren balioa» nabarmentzeko, egunkari honen 20 urteotako zenbait momentu esanguratsu jaso eta espolioaren salaketa erantsi dio bere erakusketari.



atera baino bi hilabete lehenago egunkariaren sorrera ekitaldian parte hartu zueneko.

Aurtengo greba feminista ere jasota dago Arakamaren erakusketan. Oharrean gogorarazten duenez, egun hartan egunkari honetako emakume guztiek egin zuten greba, baita zaintza lanak egin behar zituzten gizonek ere; hartara, biharamuneko edizioa ez zen argitaratu.

BI IRIZPIDE

Fidel Castro eta Mandelaren heriotzak, ETAREN su eten iraunkorra, euskal preso politikoaren aldeko mobilizaziorik handiena eta beste zenbait gaik osatzen dute erakusketa, baina ez dago antolatuta informazio arloen arteko orekari eusteko asmoz. Euskal Herriko politika, nazioarte, jendarte, ekonomia edo kultura jorratu ditu azken hogeitaz egunkari honek eta haren zenbakiaren bidez herri honen garai horretako historia arakatu liteke. Arakamak, ordea, lekuak horretaraturik, lagin bakan batzuk baino ez ditu aukeratu.

Bi irizpide nagusik gidatu dute laginak hautatu eta eratzeko: gertakariaren garrantziak eta orrialdearen ikusgarritasunak. Beraz, azken hogeitaz urteotako zenbait momentu esanguratsu agertu eta gogoraraztea baino ez da izan asmoa. Horrenbestez, lekuak eta asmo horrek adierazi diote erakusketaren neurria.

«Maiz ez gara konturatzen dugunaren balioaz», nabarmendu du Arakamak, «eta horrelako hedabide bat, handikien interes ekonomiko eta politikoen menpeko informazio unibertso ikaragarri horretatik kanpoko herri tresna izatea zaindu beharreko altxorra da». Botereen kontrola onar-


tzen ez duen hedabidea dela dio, besteek eskaintzen ez duten ikuspuntua ematen diguna, herritarren pausoarekin batera doana.

Erakusketa prestatzen ari zenean, bere ustea berretsi egin zuen egunkari honek espolioaren xehetasunak argitara eman izanak. Izan ere, joan den urriaren 31n, hogeitaz bete eta hurrengo egunean, GARAK Auzitegi Nazional espainolak ordainarazi dion zor bidegabearen inguruko negoziazioen berri eman zuen. Egun hartako lehen orrialdea ere ikusgai dago erakusketan, baita zenbaki bereko editoria- la ere, egunkariak hiru urteko epean egin beharreko ordainketen gaineko azalpenak ematen dituen. Arakamak orduan bere elkartasuna eta espolioaren salaketa eranstea erabaki zuen. Hartara, GARAREkiko elkartasunez obra bana egin zuten artistak eta asmo berarekin Donostian 10.000 lagunengain aurtean kontzertu erraldoi bat eskaini zuten dozenaka musika taldeak ere agertzen dira zenbaki banatan.

NATURA ETA GAI SOZIALAK

Natura-zientzietarako zaletasunak eraman zuen Manu Arakama argazkigintzara. Izan ere, natura da bere jardunaren parte handi bat bete duena, baita egin dituen erakusketa askoren gaia ere. Gogoan du 90eko hamarkadan, Foruko barnetegi batean zela, Bizkai-ko kostak zeharo erakarri zuela; horren ondorioz, bertako hainbat herri ere osatu izan dituzte haren erakusketak.

Horiez gain, Gasteizko Alde Zaharreko Auzo Elkarteko presidentea ere badenak gai sozialak eta politikoak ere zabaltu ditu bere kameraren bidez, hala nola immigranteen edo eus-



Aurreko orrialdean, goian, Manu Arakama GARAREN lehen zenbakiko orrialdea kokatzen; behean, Mikel Laboaren heriotza eta Kataluniako Errepublikaren albiste nagusi izan zirenekoak. Lerroon gainean, erakusketaren ikuspegi orokorra; alboan, ikurrina Iruñeko udaletxera itzuli zenekoa.


Jaizki FONTANEDA | FOKU



kal presoan aldeko mobilizazioak, senideen bidaiak... Izan ere, badu elkartasun horren inguruko proiektu bat; liburu mardul bat, hain zuzen ere,

1986tik gaur arteko elkartasun istorio baten gaineko erreportaje grafikoa, «ikuspegi humanoarekin, berez nahikoa karga politikoa du-eta».

Oraingoz, baina, pozik dago Aiztogile kaleko Hala Bedi tabernan hil honetan eta irailean ikusgai egongo den «ekarpen txiki hau» eginda.

A blue-toned photograph. On the left, a window with a white frame and multiple panes is partially covered by white, flowing curtains. To the right of the window is a brick wall. Three small, square, dark-framed windows are set into the brick wall. The overall mood is calm and serene.

GAUR8

ireki gure leihua

{ koaderno } **Xabier Izaga**

(Salbuespen) legea eta etika

Udaro bezala, hainbat politikari, zenbait hedabidek zirikatuta, euskal preso politikoekin akordatu dira. Baina ez lan astunaren zurrumbilotik kanpo haien egoeraz hausnarketa egin dutelako, jada nahiko izorratu dituztela aitortzeko-edo. Ez, udaro bezala, presoan argazkiak eta ongietorriak dira salatu duten egoera jasanezina, ongietorrien berri modu zaratatsuenean zabaldu dutenek polemika sustatuta.

Asteon bertan Kepa del Hoyoren neska-lagun Maite Sanchez eta haren seme Peru elkarrizketatu ditu egunkari honek. Barne Ministerio espainolak ez du onartu Keparen heriotza saihesten zitekeenik. Ezta, haren segurtasuna bere ardura izanda, gutxienik huts egin duenik ere. Hori ez al da Keparen senideak iraintzea, umiliatzea, mespretxatzea? Salatu eta kriminalizatzeko imintziorik ñimiñoenaren zain dauden horien enpatia ez al du ama-semeontzako eta beste hainbatentzako lekuri? Antza, existitzen ez denekin ez dago zertan enpatia izanik. Min hori euren onarpenik gabe existituko ez balitz bezala...

Esandako elkarrizketan Maite Sanchezek dioenez, lan handia egin da motxildun haurren inguruan, baina zalantza egiten du erabakiak hartu behar dituztenengana iristen ote den hori. Iritsita zein ez, ondo baino hobeto dakite existitzeko aitorpenik ez duten haur horien berri, eurek sortu edota aplikatzen baitituzte gizagabe zigortzen dituzten neurriak.

Datorren irailean 47 euskal herritar epaituko dituzte, duela bost, hamar eta berrogeita hamar urte bezala. Ez al da ezer aldatu? Badakite baietz, gauza asko aldatu direla, eurak gorabehera, eta badakite 47 lagun horien delitu bakarra elkartasuna dela, bidegabe kartzelara joateko arriskuan daudela eta, edozer gertatuta ere, urte-etako zigorra jasan dutela dagoeneko, lehenengo kartzelan eta gero epaiketaren zain. Gauza asko aldatu

dira, baina, lehen bezala, ez daude eurek eragindako mina aitortzeko prest. Horregatik, besteek eragindako minak hauspotu eta beharrean dira.

Herri honetan normalizazio eta bake prozesu bat abiatu zen duela zenbait urte. Gizarte osoak, instituzio eta erakunde guztiek parte hartzeko modukoa, baina alde bakarrekoa izan zen, batzuek parte hartu nahi izan ez zutelako, eta parte hartu nahi izan ez zutenek, areago, prozesu hori oztopatzen ahalegindu zirenek, besteari zer egin behar duen eta zer esan behar duen adierazten diote etengabe.

Legea omen da gakoa. Hala ere, legeak ez ditu ez presoan argazkiak ez ongietorriak debekatzen, eta orduan gakoa etika izatera pasatzen da (bide batez, Estatu espainolaren salbuespen legeak, baina lege, ez dira oso etikoak). Eztabaida dezagun etikaren arloan, bada. Egin

Legea omen da gakoa. Hala ere, legeak ez ditu ez presoan argazkiak ez ongietorriak debekatzen, eta orduan gakoa etika izatera pasatzen da. Estatu espainolaren salbuespen legeak ez dira ba oso etikoak...

ditzagun akordioak, hitz egin eta urratsak egin ditza-gun. Ekarpinak, Gobernu espainolaren ordezkari Jesus Lozak egin duenaren kontrakoa, hain zuzen. Zer nahi du gizon horrek, sakabanaketa zuritu? Hori eta bere alderdiak PPrekin adostutako salbuespen neurri guztiak, oraindik indarrean dauden neurriak, alegia?

Hitz egin dezagun, beraz. Gertatutakoak ez zuen jazo behar izan. Denok ados, baina gertatutakoaren erantzukizuna alde bakar batena dela uste izanda, gurpil zoro berean jarraitzen dugu, eta besteak bere erantzukizuna onartuta ere, beste betebeharrak bat jarriko zaio norberarena aitortu baino lehen.

Etika...? •

«Maitasuna politikoa den moduan, UEUren kasuan elkarlana politikoa da»

Duela zenbait aste amaitu ziren Udako Euskal Unibertsitatearen 47. Udako Ikastaroak eta Irati Iciar Madinabeitia ikastarootako arduradunarekin izan gara solasean.

Hiru urteko hitzarmena sinatu zenuten Jakinek, Usurbilgo Udalak eta UEUk. Aurten goa dagoeneko hirugarren urtea dela kontuan izanik, zein balorazio egiten duzu?

IRATI ICIAR UEU-KO IKASTAROETAKO ARDURADUNA

Beren 47. edizioa bukatu berri dute Usurbilen UEUko ikastaroek. Irati Iciar ikastaroon arduradunak bere balorazioa egin du elkarriketa honetan.

Udako Euskal Unibertsitatea

Oso balorazio positiboa da, noski. Batez ere konfiantzazko harreman batetik sortutako hitzarmena izan delako. Ez da bakarrik hiru erakunderen artean egiten dena, baizik eta hiru erakundeok elkar aitortzea bera ere. Gure papera, gure funtzioa, gure ibilbidea. Usurbilgo Udalak aitortza hori egitea aipatzekoa da; berez, ideia Usurbilgo Udaletik etorri zen. Jakin hartu zuen arlo akademikoari indarra eta gorputza emateko, eta gero UEU ere bertan egon behar zela ulertu zuen. Planetak elkarrekin lotu eta gauza zoragarriak gertatzen diren bezala, bada horrelako gauza miragarri bat izan da elkarlan hau. Benetan oso positiboa. Eta gero emaitza oso onak eman ditu bai akademikoki, bai liburuak eta bestelako edukiak sortuz. Berdin partaide eta jendearen erantzunaren aldetik ere.

Oro har hartuta, zein da aurtengo Udako Ikastaroen balorazioa?

Orokorrean balorazioa positiboa da. Alde batetik, eskaintza bera egitea lortu dugulako. Lehenengo erronka hori delako; 30 ikastaro antolatu, sei jardunaldi sartu. Guztiak ere gaiengatik interesgarriak direlako, bai antolatzaileen-gatik, bai ikastaro edo jardueron atzean dagoen elkarlanagatik beragatik ere.

Alde batetik, eskaintza egitea lortu dugu eta hori da gure urteroko erronka. Eskaintza berria eta interesgarria antolatzea. Eta bestea zati bat da jendearen erantzuna. Guk eskaintza hori egiten dugu norbaitentzat interesgarria,



«Positiboa izan da parte hartzearen aldetik eta oso positiboa elkarlanaren aldetik. 'ElkarEkin' leloa ez da kasualitatea eta nik uste dut Udako Ikastaroak direla bereziki UEUren barne elkarrekintza horren eremu naturala»





Argazkiak: UEU eta Jon URBE I FOKU

beharrezkoa delako, hutsune bat betetzeko asmoz. Horretan ere emaitza ona izan da.

Egia da bidean ikastaro batzuk ez direla irten edo ez dutela eduki guk espero genuen parte hartzea. Baina talde politak sortu dira. Tamaina ezberdinetakoak. Arrakasta beti ez da jende asko biltzea, baizik eta jende egokia biltzea. Orduan positiboa izan da parte hartzearen aldetik eta oso positiboa elkarlanaren aldetik. “ElkarEkin” leloa ez da kasualitatea eta nik uste dut Udako Ikastaroak direla bereziki UEUren barne elkarrekin-tza horren eremu naturala. Hasi akademikoki ikastaroak antolatzetik, eta baita azpiegiturak lortzeko orduan ere. Usurbilen kasu honetan, edo

Baionako Lizeoan edo Iruñeko Ezpeleta jauregian. Eibarko Markeskoa jauregia bera ere elkarlan batetik sortua da. Udako Ikastaroetan egia da gorpuztu egiten dela eta benetan ikusgarri bihurtzen dela elkarlan hori. Maitasuna politikoa den moduan, UEUren kasuan elkarlana politikoa da.

Urtetik urtera hazten doan elkarlana da, gainera...

Bai, egia da. Gainera, guk ere sustatu egiten dugu. Alde batetik, datozen proposamenen artean ere baloratzen dugu nork proposatzen digun edo norekin edo zein elkarlan proposatzen diguten. Eta beste alde batetik, sustatzen dugun lekua da. Udako Ikastaroek ere

malgutasun hori ematen digutelako. Urte osoko eskaintzak baditu beste ezaugarri batzuk, beste hartzaille batzuk eta beste tempus batzuk. Eta Udako Ikastaroak gure-gureak dira. Gure neurritik, guk nahi dugun moduan antolatzen ditugu. Guk nahi dugunean hasten dira, guk nahi dugunean amaitzen dira. Guk jartzen diogu kolorea, guk jartzen diogu elkarlana.

Zein paper dute gaur egun Udako Ikastaroek?

UEUren barruan Udako Ikastaroen papera gure nortasunari jarraipena ematea dela uste dut. Egia da Udako Ikastaroak UEUrekin batera eta gizartearekin batera asko aldatzen joan direla. Eboluzio bat

«Udako Ikastaroak UEUrekin batera eta gizartearekin batera asko aldatzen joan dira. Eboluzio bat izan dute. Egungo munduarekin kontaktua mantentzen laguntzen digute»



izan dute. Eta bai, nolabait, egungo munduarekin kontaktua mantentzen laguntzen digute. Aldi berean, gure jarduerarik ezagunena da, UEUri nortasuna ematen diona kanpora begira. Bestetik, ematen digu praktika bat barrura begira lan egiteko: gure sailekin, bazkideekin... Baina praktika hori eta nortasun hori kanpora begira ere islatzen da komunikabideen bitartez, partaideen bitartez, sare sozialen bitartez... Hiru aste oso intentsu dira. Nik uste dut UEUrentzat erakusleihu oso garrantzitsua direla gaur egun oraindik ere. Eta elkarlanerako ere horrela dela ulertzen dute datozen eragile ezberdinek. Datozela bada UEUrekin zerbait egitera.



Gorka RUBIO | FOKU

IKUSMIRA

NORBANAKOAREN ABERASTASUNA, DENONA?

Adam Smith kapitalismoaren aita pontekoetakoak zioenez, gizakiak bere helburuak iristeko izan behar duen muga bakarra bere gaitasuna da. Horrela, gizabanakoak ez ezik, multzoak ere irabazten du. Hau da, baten aberastasuna denen aberastasuna da. Beharbada, benetan sinisten zuen. Edo bere teoriaren garapena bezain zuri eta bihozgabea zen?

Gaur hasi da Euskal Herrian munduko herrialde aberatsenen ordezkarien bilera. Gaitasun handiko jendea. Munduak ez du arazo larririk falta eta gaitasun handiko jendea behar du. Jende hori da, ordea, munduaren arazorik handiena. Beren interes ekonomiko eta militarrek lehenetsiko dituzte. Hobeto esanda, beren gaitasuna interes horiek defenditzeko erabiliko dute, ez baitute beste interesik. Sinetsi behar al dugu horien aberastasuna munduaren aberastasuna dela? Horren lañoak gara? Edo horren zuriak? Xabier Izaga

Bizipoz

Antton Izagirre

Bizipoz deitzen diote Markel Irizar txirrindulariari. Dagoeneko txirrindulari ohia esan beharko, utzi berria baitio profesional moduan lehiatzeari.

Bada hilabete bat “7K” aldizkariak egin zion elkarrizketa irakurri nuela eta, txirrindulari modura ezaguna banuen ere, elkarrizketa horretan erakusten zuen gizatasunak arreta eman zidalako aipamen berezia merezi zuela pentsatuta, zutabe honetara ekarri nahi izan dut.

Aitortu behar dut emozioz, hunkituta irakurri nuela elkarrizketa. Geroztik ETBk eskaini dion erreportajea ikusi dut eta,

txirrindulari modura izan dituen merezi-menduak ezagunak badira ere, agerian utzi nahi nituzke hark baliotsuagoak direlakoan nabarmendu nahi izan dituen giza baloreak.

Bizipoz ezizena egoki jarria duelakoan nago. Bizitzak eskaini dizkion ezusteko guztien gainetik erakusten duen sendotasuna, bizinahia eta itxaropena edonork beretzat nahiko lituzke, balio modura gizarte honetan egin asmo dugun bidea zentzuz burutzeko. Erresilientzia modura ezagutzen den gaitasun hori ondo gartua duelakoan nago. Aipatzen hasita, baikortasunari eta enpatiari egiten dizkion

erreferentziak bizitzari emandako kantutak dirudite; ahul, baztertu eta babesgabekoen aldeko deiadarrak, berriz, ontasun eta justiziari eginiko olerkia. Aitatasunaz, familia eta lagunarteaz erakusten duen mira, benetakotasunaren ispilu dela erakutsi digu.

Lehia eta garaipena maite dituen arren, kiroltasunez jokatu eta lagun giroan jardutea atsegin duenaren lekukotza utzi digu.

Bukatzeko, sustraiei lotua, lurrari, herriari eta hizkuntzari fidel ageri zaigu. Euskaldun izateaz harro.

Bejondeizula Markel! •

Santuak eta azaloreak

Miren Azkarate
Badiola

Hilabete honetako artikulu honentzat gaia pentsatzen ibili ostean, gaurko, abuztuaren 24ko efemerideak begiratzea otu zait sarean barna. Wikipedian sartu naiz eta bertan jende famatuaren jaiotza datak, heriotzenak, gertaera politiko pila bat eta naturako beste hainbat aurkitu ditut besteak beste. Baina batek ere ez dit bereziki atentzioa piztu eta webgune berean behera jarraitzea erabaki dut.

Hortxe, pixka bat beherago, ospakizunak jartzen duen atalean sartu naiz eta

hor bai, hor aurkitu dut atentzioa eman didan zerbait. Argentinan Irakurlearen Eguna omen da gaurkoa, Costa Rican Parke Nazionalen Eguna, Uruguain, aldiz, *Payador*-en Eguna (kantautore herrikoiak dira, gitarra batez lagundurik bertsoak inprobisatzen dituztenak), eta Nostalgia-aren Gaura ere ospatzen da. Azken adibidea Espainiari dagokio: bertan San Bartolome apostoluaren ohorearen aldeko jaiak dira. Hau da hau marka! Hego Ameriketako herrialdeetako egunekin gozatzen ari nintzen eta, harrapazan!,

santuekin egin dut topo, nora eta Espainiara iristean!

Jakin-mina piztu zait. Gainontzeko egunetan zer? Espainian santu eta amabirjinekin jo eta fuego. Bere konstituzioan bere burua laikotzat duen herrialdeak festa eta egun guztiak santuekin izenpetzen ditu. Zein polita izango litzatekeen beste herrialdeetakoak bezala guk ere diren bezala izendatu eta berrasmatuko bagenu gure ospakizunak: Otsoen Eguna, Azalorearen Eguna, Zaintzaileen Eguna... santuak behingoz alde batera utzita. •



Arantza Diaz de Ilarraza
EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria

Zientzia eta teknologia: gizonen kontua soilik?

Duela gutxi, dibulgazio zientifikoko artikulubatean irakurri nuen negoziotzat teknologia-berrikuntza duten enpresak urrats garrantzitsuak ematen ari direla langileen artean arraza, kultura eta genero aldetik aniztasuna lortzeko beren barne-antolaketan. Genero-aniztasunari dagokionez, Googlek, Facebookek, Microsoftek eta abarrek emakume-portzentaje handiak dituzte beren langileen artean –baita goi-mailako postuetan ere–, emakumeak kontratatzeko eta enpresan luze atxikitzeko politika aktiboak dituztelako. Zein da estrategia horren arrazoia? Bada negozio ikuspegia, zeinetan funtsezkoa den

emakumeen eta beste kolektibo batzuen ikuspuntua izatea, produktu teknologikoak diseinatzerakoan emaitzak inklusiboagoak eta askotarikoagoak izan daitezen.

Aipatutako artikuluan, enpresa horietan erantzukizun handiak dituzten emakumezkoak elkarriketatzen zituzten; haien iritziz, goi kargudunen artean emakume kopurua nahiko altua bada ere, oraindik asko dago egiteko. Arlo teknologikoan berdintasuna lortzeko estrategiak markatzen ziren, eta horien artean bat azpimarratuko nuke: garrantzitsua da neskengan teknologiarekiko interesa txikitatik pizten saiatzea, hortxe baitago, nire ustez, hutsunerik handiena. “She Figures

2018” txostenaren arabera, Europar Batasunean, ingeniartzako tituludun edo doktoreen artean %29 emakumeak dira, eta, konputaziokoetan, berriz, % 21 besterik ez. Ondorioak, noski, lan mundura ere iristen dira, eta emakume zientzialari eta ingeniariak gutxiago dira gizonezkoak baino.

Funtsezkoa da arlo teknologikoe-tako profesionaleri buruz dauden estereotipoak aldatzea eta arlo horietan parekotasuna sustatzea, ikasle emakumezkoak era horretako ikasketak egin ditzaten sentsibilizatzea. Une honetan, badaude helburu horretara zuzendutako ekintzak sustatzen dituzten unibertsitateak: Kataluniako Unibertsitate Irekiak (UOC), esate baterako, gazteen artean teknologia-arloetan bokoak motibatzeke jardunaldiak antolatzen ditu. Zientzia jarduera humanizatua eta benetan baliagarria dela jendearen arazoak konpontzeko, horixe ikusaraztea da jardunaldi horien helburua. Gainera, argi utzi behar da, nire ustez, zientzia eta teknologia zabalik daudela gizarte-sektore desberdinetako pertsonen parte har dezaten, eta talde-lana funtsezko elementua dela. Azkenik, ezinbestekoa da arlo hauetan paper garrantzitsua bete duten emakumezkoen erreferenteak izatea eta ezagutaraztea.

Hezkuntzako langile garen heinean, antzeko estrategia bat planteatu beharko genukeela uste dut, lehen mailatik hasi eta unibertsitatera bitartekoetan dihardugun agente guztiak koordinatuz, karrera teknologikoetan genero-parekotasuna benetakoa izan dadin. •



Garrantzitsua da neskengan teknologiarekiko interesa txikitatik pizten saiatzea.

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



PASCUAL MARIN. MARIN FUNTSA. KUTXATEKA

FRANKISTAK, DONOSTIARA SARTU BERRITAN

1936ko irailaren 13ko arratsaldeko ordu batean Molaren armada, militarrek, erreketek, guardia zibilak, legionarioak eta falangistak Donostiara sartu ziren Mirakruz kaletik. Bitartean, Donostiako kaitik azken milizianoak irteten ari ziren. Donostiarren erdiak baino gehiagok alde egin zuten hiritik frankisten iritsiera zela eta. Amara Zaharra eta Egia auzoetan, esate baterako, bizilagunen %70ek baino gehiagok ihes egin zuten. Donostiar askok jasan zuten errepresioa; kartzelatu, torturatu eta fusilatu egin zituzten asko, eta beste asko gabetu zituzten beren ondasun guztiez, etxea eta lana tartean. Irudia, kalitate handikoa ez bada ere, neurri batean altxatuak Donostiara sartu ondorengo lehen egunetan gertatu zena islatzen duen dokumentu paregabea da. Bertan, Garibai kaleko 4. zenbakia ageri da, Unión Republicana alderdiaren Donostiako egoitza; frankistak sartu arte hiriko alkatea zen Fernando Sasiain zen alderdiko presidentea Donostian. Irudian, guardia zibil batzuk ageri dira, Pascual Marin argazkilariaren aurrean jarrita, su handi bat egin eta liburu eta agiriak erre ondoren.



ireki gure leihoa

GAUR8

